


INFLAZIOA

Aste Santuak inflazioa gorarazi du

KPI indize orokorra
Urte arteko aldakuntza tasa




Kontsumoko prezioek bi hamarrene-tan gorarazi zuten beren urte arteko tasa apirilean, %1,7an utzi arte. Beraz, hirugarren igoera jarraitua izan dute otsailetik. Goranzko aldakuntza horren atzean Aste Santuaren egutegia dago, aurten apirilean ospatu baita 2018an martxoari egokitu zitzaion bitartean. Beraz, datozen datuetan gorakada horren zati bat kontsentsatuta geratuko dela espero behar da.


KPIaren banaketa
Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2017	2018	2019ko apirila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	2,0	1,6	1,7	1,7
Azpiko inflazioa (%81,4)	1,1	0,9	1,1	0,9
- Elikagai landuak (%13,6)	0,0	0,9	0,3	0,1
- Industria ondasunak (%24,8)	0,3	-0,1	0,1	0,0
- Zerbitzuak (%43,0)	1,7	1,5	1,9	0,8
Hondar inflazioa (%18,6)	6,5	4,6	4,3	0,8
- Landu gabeko janariak (%7,6)	3,7	2,9	0,7	0,0
- Energia (%11,0)	8,2	5,9	6,9	0,8

Azpiko inflazioa
Urte arteko aldakuntza tasak




Hondar inflazioa
Urte arteko aldakuntza tasak



Brent motako petrolio upelaren eguneko prezioa

Dolarrak



Berriro ere, inflazio tasa altuena garraioak bildu zuen (%4,7), petrolio gordinaren salneurriak izan zuen igoe-rak bultzatuta, maiatzean upelaren prezioa 75 dolarren langa gainditzera iritsi zelako. Iranen eta AEBen arteko gatazka gero eta sutuagoak eta petrolio horniketaren aurkako erasoek garestitzea azaltzen dute. Halaber, aurrerago aipatu den Aste Santua efektuak talde horren urte arteko tasak are handiagoak izatea ekarri zuen, bidaiarien aireko garraioaren salneurriak garestitu zirelako. Eragin hori hotelak, kafetegiak eta jatetxeak biltzen dituen taldean ere nabaritu zen, inflazio tasa bigarren handiena (%2,4) baitute, oporren garaiari oso lotuta dagoelako. Orobat, aisialdiak eta kultura taldeak (%0,3) ere Aste Santuaren hileko alda-keta nabaritu zuen eta 1,7 puntutan igo zuen bere tasa aurreko datuarekin alderatuta, turismo paketeen garestitzearengatik.

KPIaren talde nagusiak

Urte arteko aldakuntza tasak. 2019ko apirila

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	1,7	1,5	1,7
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	0,4	0,8	1,1
Edari alkoholdunak eta tabakoa	0,6	0,7	2,9
Jantziak eta oinetakoak	1,2	1,1	0,3
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	2,2	2,0	2,8
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	0,4	0,6	0,4
Osasuna	0,2	1,0	0,8
Garraioa	4,7	3,2	2,9
Komunikazioak	0,2	0,1	-2,7
Aisia eta kultura	0,3	0,3	1,8
Hezkuntza	0,8	1,0	0,0
Jatetxeak eta hotelak	2,4	2,3	2,4
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	1,6	1,4	1,6

Iturria: INE eta Eurostat.